

# ANTZERTI

EUSKEL-ANTZERTIAREN ILEROKOA

"LAÑO" TA "IZAR"

LIZARDI'TAR XABIER

"MAYA" -- Ayanbe'tar L.

"GUZIK GAXO"

Erderatik antolatutako bakaizkera

2'en ta 3'en Zenbakia

1952—Otsaila-Epaila

# IĒKO BEĒIAK.

---

## Efusitarak gure artean.

Norbait beldurtuko da idazpurua irakurritakoan. Ez ikaratu, irakurle. Ez dira boltxebiki ala komunista goñiak etofi zaizkigunak; Mosku'n aldi batean, ta orain Praga'n dauden antzez-lari-taldea baizik.

Efusitar "lagundi" ori, Barzelona ta Madrid'en izanez geroz, Donostia'ko Kursal'en lau antzez-kizun eman ditu efusieraz noski. Ikusleak adi zezaten gure "Beorlegi" euskel-antzez-lari bikañak, itzaufe, aintzin-solas bezela, erderaz azalpenak irakuri ditu.

Ostrowski ta Gorki'ren antzerkiak agertu dizkigute. Ostrowski'ren "*Txirotasuna ez da eña*" ikusten izan giñan ta benetan antzez-lari-talde ezin-obeia iruditu zitzaigun. Bakoitzak ta guztiok osora zeatz ta bikain lan egiten dute.

Mintzatzen, ibiltzen ta egoten ba-dakite, batak ta besteak, antzerkiari afigafizko egiantza emanaz.

Ontan zer ikasia euskel-antzez-lariak ba-dute, ta ez dala alpefik izango efusitafen iker-taldia derizkiot.

Bestela, antzerti tankeraz ta mamiz gauza beñirik ez digute azaldu alegia Tairoff ta Soviet'eren ikastolarenik. Ufena bearko.

## PARADA'ren beste antzerki beñi bat.

Parada'tar Isidor idazle eza-gunak Biar ta Etxabe'rekin Bilbao'n Antzerti euskotar ta aberkoiari eutsi diona, antzerki beñi bat idatzi du "*Ortzetik jausita*", euskera-erdera erabili-az.

"*Sabin-Etxia'ko*" antzez-lari taldeak lenengoz agertu zun Deun Joseba egunez Bilbao'ko "*Campos Eliseos*" antzokian.

"Euzkadi" egunkariak dionez, antzerki oni, ikusle-entzuleak afera ona egin zioten, egile ta antzez-lariak txalo ta zorion agur asko jasorik.

Gureak, ez epelagoak, bijoazkie.

---

## PEDRO MARI.

Izen au dun antzerki-itun ta aberkoia Bilbao'ko "Euzko Gaztedi"-koak bein eta beñiz azaldu digute bertako "*Campos Eliseos*" antzokian.

Beti bezela giza-taldeak atseginez ta otxikaraz ikusi ditu "*Pedro Mari*"ren gertakizunak ta zorigaiztoko erioa...

Alabañan, Euzko Gaztedi'ko antzez-lari-aldra'ren, zuzendariari oar batzuk egin nai geniezke.

Euskera geiago ezin sartu al dezakete "Pedro Mari"n?

# "LAÑO" TA "IZAR"

LIZARDITAR XABIER.

(PRÓLOGO)

---

(Recítele una muchacha, cuando el público no sea completamente euskeldun.)

Señoras y señores... O bien: *Jaunak eta andreak*, como se dice en vasco, poniendo primero a los hombres, que son lo más importante del mundo, mal que a nosotras nos pese...

Señoras y señores... *Jaunak eta andreak*: ¿me dejaréis que os cuente un cuento?... ¿Sí?... Pues, escuchad.

Una tarde de jueves jugaban niños y niñas en el campo. Y no se hartaron de jugar hasta que anocheció. Entonces floreció en el cielo la hermosa luz azul de la estrella Venus—*Artizaña*—y bajo ella se veía una nubecilla, arbolada aún por los últimos rayos de sol.

La chiquillería admiró aquel espectáculo, y, cantando un viejo aire vasco, se decía: “¡Quién pudiera subir al cielo y cojer esa estrella! ¡Y envolverla luego en esa nube tan bonita!... Pero, qué le vamos a hacer... Cuando *artizaña* aparece en el cielo, aquí abajo se convierten en estrellitas las luciérnagas, los *ipurtargis*... Cojamos, pues, *ipurtargis*, ya que no podemos alcanzar las estrellas de verdad...”

Pero un hada, amiga antigua del pueblo vasco, había escuchado conmovida la canción, y se presentó a los niños. Y díjoles que les iba a contar la historia de la estrella y la nube, de *Izar* eta *Laño*.

*Izar* y *Laño* eran dos hermanitos, chico y chica. Eran como dos pequeños trovadores que cantaban a todas las puertas bellas canciones vascas, recibiendo en pago dádivas sabrosas.

Y hé aquí que un día llegaron a un hermoso palacio. A cantar, como siempre. Pero les detuvieron. La dueña del palacio, una reina hermosa, estaba enferma, muy enferma, porque la mala voluntad de un su enemigo la tenía embrujada.

Entonces, *Laño* e *Izar* van donde su amiga el hada: la misma que miles de años después ha de contar a los niños de hoy este cuento, y ha de contarle en *euskera*, porque nunca aprendió otra lengua.

Y el hada les dice: “La reina puede sanar, pero hay un solo medio: hacerle sorber la hiel del dragón terrible de *Lezebeltz*.”

*Laño*—¡animoso *mutiko!*—se apresta a ello. Toma un hacha de plata, de manos del hada, y se encamina a *Lezebeltz*, que es una negra cueva. Le acompaña su hermanita, que también es muy decidida... Por ocultas veredas sígueles el hada, con muchas otras amigas de igual condición.

El combate es tremendo. Pero *Laño* vence. Al llegar a este punto del cuento, es probable que los chiquillos se entusiasmen y se pongan a danzar de puro gusto. Mas, muy pronto, un rumor fúnebre los detendrá. Y sabrán que *Laño* ha muerto también, desangrado por los horribles zarpazos que le dió el dragón.

Y entonces vendrán las otras hadas (¡ya vereis qué guapas!) trayendo el cuerpo del pobre chico, seguido de la hermana inconsolable. Y lo cubrirán de flores.

Y el hada mayor concluirá su cuento, diciendo: “¿Sabéis que fué de *Laño* y de *Izar*?” Pues, como ésta no le quitaba los brazos del cuello, con objeto de que no se separasen los elevamos al cielo, y al chico lo convertimos en nube arrebolada (*laño*) y a la niña en brillante estrella (*izar*). Y ahí los teneis desde entonces decorando nuestros más bellos crepúsculos.

Pero luego el hada dirá algo de mayor sustancia. Se dirigirá al público, a vosotros, señoras y señores, *jaunak eta andreak*, y os dirá: “La noche viene: el fulgor de la nube y de la estrella va apagándose. En nuestros montes ya no resuenan tan bellas como antaño las canciones de la Patria. Pero... vuélvanse estrellas los *ipurtargis* que estos niños han cogido, y nuestra noche será estrellada, claro heraldo de un amanecer radiante. Euskaldunes: sedlo cada vez más, y Dios esté con vosotros.”

Esta es la pequeña leyenda que vais a ver escenificada.

Bueno...; pero ¿no me aplaudís?

# “LAÑO” TA “IZAR”

(IPUI ANTZEZGARÍA)

## I.

**ANTZEZTOKIA:** *Landa. Ilun-nabar.*

**LENENGO IKUSGAIA** (*linterna-plaka*): *ortzian izar eder bat, azpian odei gorizta duala.*

**IPURTARGIAK:** *or-emenka, inguruko sasi-láretan.*  
**NEXKA-MUTIKO TALDEA:** *zapia jasotzerakoan, margo-izpi aulez erdi-argitu ta nabarmenduak, zorzi bat nexka ta beste ainbeste mutiko, artxai ta artxai-andre jantzian.*

**ORKESTAZ TA ABESTIZ:** *zapia jasotzeaz bat orkestak laguntzen diela ekin bekiote nexka-mutikoek “Artizara zeruan” abesten:*

*Nexka-mutiko taldeak.*—Artizara zeruan

agertzen danean,

ipurtargia ere

izar da lufean.

O, zein eder, goikoa

ba'gendu mendean:

odei gorizta ortan

bil genezakean!..!

Ipurtargia ar zágun, (Bi aldiz.)

besterik ezean.

**ORKESTA UTSAK** *jafai bezakio.*

**DANTZA-ANTXEAN** *urbildu bitez nexka-mutikoak inguru-sastetara.*

**IPURTARGIAK ATZITUZ** *betoz befiro erdira, eresiaren ariora argiok darabilzkitelarik.*

## II.

**ORTOTS LARIA** (*acordes-trueno*), *orkestak.*

**ARGITU BEDI ANTZEZTOKIA**, *tximistaz bezela, bat-bateko.*

**MAITAGARI BAT** *agertu bedi, atzetik, bekokian izar urdiña duala. Betor aufera; txikiek, agurka, bide-egiñaz, esku-argiak luzatzen dizkitotela.*

*Maitagarriak.*—Gabon, maiteok. Zuen ots gozo ofek erakafi nau basotik. Afigaria! Gaur dan egunean, euskal-kanta

zaafik dakiten umeak!... Nortzu zaituet, ba, aingeru eder oiek?

*Mutiko batek.*—(Aldamenekoa ukalondoaz jotzen dula.)—Esaioik ik.

*Beste mutiko batek.*—(Lengoari.)—I ni baño aundiagoa aiz!

*Nexka batek.*—(Aldamenekoari.)—Au ez den efikoa...

*Beste nexka batek.*—Enee, ez! Olako andre apañik!...

*Maitagañiak.*—Etzerate ausartzen? Ez bildur izan. Maitagañi bat nazue: eztzuet ezer txafik egingo... Ia! Ik, txikien ofek, esango diak: nortzu zerate?

*Guziek.* . . .—(Pañe-pañustaka.)—Eneee!... Potolooo!!...

*Potolo'k.* . . .—(Uñats bat auñera.)—Andrea: euskaldun jatofen aufak gaitzuz. Argatik dakigu euzkeraz; argatik ere, euskal-kanta eder-askoak...

*Maitagañiak.*—Ederki, Potolo maxail-gofi! Txalo Potolo'ri, ta txalo bere lagunei!... Baña orain, esadazute: abesti zaar gozo oiek nork asmatuak diran ba'aldakizue?

*Nexka batek.*—Gure efiko Mantoni zaafak, andrea!

(Mutilek, pañ-argara aundia)

*Mutiko batek.*—Tuntuna alena!... Ez, andrea, ez: Elizako organista jaunak!

(Nexkaen pañe-argara aundiagoa.)

*Maitagañiak.*—Ez dezute asmatu: ez nexkaak eta ez mutiok. Ik bai-ote-dakik, Potolo, ain jakintsu aizen ofek?

*Potolo'k.* . . .—(Buruari azka, lotsatu-askirik).—Nik,... egia esan,... ofenbeste ez dakit, andrea...

*Maitagañiak.*—Ez?... Exeri, ba, guziok, eta nik esango dizuet ipui bat..., edefagoa!

(Txiki guzik exeri bitez lufean.)

Ikusten al-dituzue zeruan izar eder ura, ta, beean, laño gofixta bat?... Oietxen ipuia esan nai dizuet, ba: "Laño" ta "Izar"-en ipuia, alegia.

Bein bai-omen-ziran, orain milaka urte, zuek bezelakoxe anai-arebatxo bi... Gau ta egun mendirik-mendi zebiltzan. Ara! bertan agertu...

BIGAREN ARGIRUDIA (Lnterna): "Laño" ta "Izar" mendiz-mendi.

*Nexka-mutikoek.*—Ooooo!!!..... (Esku-argiak ikusgaiari zuzenduz.)

*Maitagañiak.*—Mutikoak "Laño" zun izena: nexkaak, "Izar".  
Atariz-atari—naiz basefi, naiz tofe-etxe—alkafekin

kantatzea zuten bizimodua. Amaika sagar eder, amaika lukainka gofi, ta txeriki gozo, ta olanda zuri, ta gazta guri... sartzen zituen aiek zofo aundi batean!

(*Nexka-mutikoei begiak biribiltzen zazkie.*)

Bañan...

*ORKESTAK, ukaldi labur bat (acorde preliminar.)*

... entzun, entzun, "Laño" ta "Izar" kantari.

*"NIK BADUT MAITEÑO BAT" ututian, bik abestua, beetik ORKESTAK laguntzen diela.*

*BIGARENAN, NEXKA-MUTIKO GUZIEK abestu bezate, abestiaren arlora esku-argiak darabizkitelarik.*

*IXILUNEA. Baño guziak maitagariarengana adi.*

Beñola... jauregi eder batean ateetara ziralarik...

*IRUGAREN ARGIRUDIA (Linterna): Jauregiaufean.*

*Nexka-mutikoei.*—Oooiii!! (*Leen bezela.*)

*Maitagariak.*—Bertan efegin gazte eder bat gaixorik zegoala jakin zuten... Oso gaixorik eze, etsai zital batek begizkoa egiñik baitzegoan.

Ordun — adiskide baininduten — badatozkit basora galdezka, ia efegiña iñola sendatu al-ziteken... Nik, baietz: baña, artarako, "Lezebeltz"eko dragoi izugafia...

*Poñolo'k* . . . —(*Luñetik jaikiaz*) —Andrea: Gure aitak "irantsugea" esaten du, ta ez "dragoia"...

*Nexka-mutikoei.* —Txissst!!!...

*Maitagariak.* —(*Pafe-algaraz*). —Bai?... Ondo zeok, Poñolo... "Irantsuge" esan zagun ba... Izan ere, oraingo umeok badakizute gauzez!

Lezebeltz'eko irantsugea, ba, il bear zutela esan nien: ta aren beazuna efegiñari jan-arazi.

"Laño'k" bereala, baietz: berak ilko zuala!

*LAUGAREN ARGIRUDIA (Linterna): Zilafezko aizkorez.*

Eman diot, bada, zilafezko aizkora zofotz bat, eta an abiatu dezute bildur aundirik gabe, Lezebeltz'erako bidēan bařena, "Izar" lagun zuala.

Ni ta beste maitagari asko, aiek oartu gabe, atzetik jaraika ginjoazkien.

Ontan, eldu gera Lezebeltz'era.

*BOSGAREN ARGÍ-IRUDIA: Lezebeltz.*

*Nexka-mutikoek.*—Oooiii!!... (*Leenetan bezela.*)

*Maitagañiak.*—Dragoia... (ai! "irantsugea... Barkatu, Poñolo) esnatu-beñia zan. Irten digu bidera... Ai, ai, ene! Ango iskanbñla laría, ango buñuka gaitza!! Gogoratu utsak zoratu-arazi bear nauela uste!...

*ERESI NAASI ANTZEZKÒRA jo lezake orkestak, azpitik, maitagañiak liskara edestu-bitartean.*

*TXIKIAK URDURI ta gero ta adiago.*

Sartu zaio arin "Laño"... Jo irantsugea aizkoraz, ta jas! lafu lakañean irista... Altxa da erdika pizti zital ura, sabel nardagafi gañean, ta...—Jainkoa bezak lagun, maite!—erpe zofotzaz atzitu dio iztaña, ta goitik beera uratu... Baña, mutilari... bost ajola!... Amoru aundiagoz an dijoakio beñiro... Zanko gñafen gañean luzatu du gorpuztxoa, luzatu, luzaatu...! Gorputz-gañetik, besoak goitu ditu, aizkorari itsatsita... Ta, alako batean..., dzast! aizeari txistu eragiten ziola, ora amildu bat-batean aizkora, irantsugeari kaska-ezura autsi, ta zilaña lurpean ezkutatu arteraño!

*SEIGAREN ARGÍ-IRUDIA: "Laño" garañe.*

Ta, ora non dezuten irantsugea burutik luñari jositia, izatz kozkorduna azken-lañiez astintzen!

*Nexka-mutikoek.*—(*Poz aundiaz luñetik jeikiatz.*)—Gora "Laño"! Gora, gora, goraaa!!...

*EZPATA-DANTZA mutilek, erdian, nexkaak inguruan, esku-argiak goruntz, dtutela.*

*INGURUTXOA, bereala, guziek elkarëkin.*

*ORKESTAK lagunduta.*

*BAT-BATEAN, ORKESTAK ostots bat.*

*ZAZPIGAREN ARGÍ-IRUDIA: "Laño" ilda, "Izar" negañez.*

*TXIKIAK GELDI!*

*IL-ERESI LABURA.* (*l-eresi ori egin dteke, "Nik badut maiteño bat'en bigañen zatia zerbait ukitu ta "tono menor" dalakora biurtuz.*)

*Maitagañiak.*—Negar..., negar..., negar!!!... Negar egizute, nere txikiok! Il baita "Laño"..., il baita!!..., il!!! zauri izugarí artatik odolez uztuta!...

*TXIKIEN ITUNA ta negaña.*



### III.

*Maitagariak.*—Atozte, maitagari adiskideak: atozte, “Laño” ederearen gorputza zuekin dakartzutela...

*ARGITASUN BIZI bat-batekoa.*

*LAU MAITAGARI sar bitez atzetik, bekokian izar urdin bana, “Laño” ilda, dakartela.*

*IZAR betor gorputzaren atzetik, atsekabez,*

*BESTE LAU MAITAGARI, guzien atzetik, eskuan lore eder batzuk dituztela.*

Atozkit zu ere, Izar gaxo biotz-erdibitua!...  
Ta zuek, nere lagunak, gorputza estali zazute lorez.

*GUZIEKIKO TALDEA: etziñik “Laño”, “Izar” aldamenean belauniko, inguruan nexka-mutikoak*

*SAGAR-DANTZA dantzátuz, maitagariak –esalea ez besteak –irauli bitzale loreak gorputzaren gañean.*

*GUZIEK GELDIRIK osatu bezate talde ikusgaria.*

Laguntxoak: gure ipuia amaitu dezagun...

Éregiña sendatu zan, guk irantsugearen beazuna emanda. Baña “Laño” ta “Izar” eder aietaz ez dakizute zer gertatu zan. “Izar”ek etzituan besoak “Laño”ren lepotik azkatu nai... Ordun, betirako alkafekin egon al-zitezen, zerura jaso genitun, bata laño gorizta biurtuz, ta bestea artizar eder... Ortze daude azezkerero, euskal-ilunabar edereanak apaintzen.

Orain ikusi, nere maite txikiok... Lañoa ta artizafa itzaltzen ari dira... Gaua badator... Gure mendietan “Laño” eta “Izar”en ots zaar ezti aiek auldu egin dira, ta ia aaztu... Sasian bildu dituzuen ipurtargiok biurtu bitez izartxo zuen eskuetan, ta gure gaua ez da izango beltz: gau ozkarbi, gau izartsu, goiz eder baten aúfelari, bai, izango da.

*(Entzuleai zuzendu bezazkie urfengo itzok).*—  
Euskaldunok euskaldunagotu zaitezte, ta zuen kanta

zaafekin batera iraun beza euskera zaaragoak egu-  
nen azkeneraño!...

*ORKESTAK: Lenbizi "Nik badut maitaño bat" orot-  
taraziaz. Gero, "Artizaía zeruan".*

*ABESTU nexka-mutikoek ufengo neurlitzok, maita-  
gañiek, aopeka, lagun ditutela.*

Artizaía zeruan  
aurki da izkutatu.  
Etxera sar gaitean:  
danak zai ditugu.  
Nundik zatoz, enetxo,  
amak esan digu:  
ipurtargiak jaso  
ta izartxo biurtu!  
Ipui bat, zein polita!  
amatxo dakigu...

*ORKESTAK jafai bezakio, bakafik.*

Agur, euskotar onok:  
Euzkadi maitatu!

*ORKESTAK jafai beza, oiala, geldi-geldi eratxi bi-  
tarteetan.*





# "MAYA"

(Apunte escénico) (Ballet)

ANDRE MAYA ÉREGIÑA.

PERSONAJES.	{	MAITE (MAITASUNA) . . . . .	(Uso bat kabitxoan)
		LOREA . . . . .	(Afoza bat eskuan)
		EGAZTIA . . . . .	(Txori bat haiolan)
		EGUZKIA . . . . .	(Karda lore eskuan)
		ILARGIA . . . . .	(Krisalua)
		EGIA . . . . .	(Taloa ta talo burnia)
		IRULEA . . . . .	(Ardatza)
		ITUŔIA . . . . .	(Sula buru gafean)

## AGERALDI BAKARA

### ESCENA UNICA

*(Mendian. Sagar-zuaizpean Andre Maya Eregiña eserita. Inguruan bere mirabeak) otafa eskuan dala.*

### ITZAUREA.

MAITE (MAITASUNA)

Zein geran? Andre Maya Eregiñaren mirabeak.

Ta gure izenak?.... Lorea, Egaztia, Ogia, Irulea, Eguzkia, Ilargia, Itufia ta ni.... Maitasuna....

Itzen goxoaren-goxoa!

Guziok Andre Maya Eregiñari egingo diogu eskeintza.

Andre Maya Eregiña! Eserita zaude alki biguñean, sagarpean, lore zuri, eder ta usaintsuen artean. Gaur da zure amets urdiña. Artu itzatzu gure oparitxoak.

Gure maite-agufa....! AR!

### ERESIA.

*(Mirabe bakoitzak bere bertsua abestu beza ta bukatzerakoan Eregiñaren otafean oparia utziko du.)*

### LOREA.

Andre Maya Eregiña

Lilia ta krabeliña (bi aldiz)

Nik dakarkizut gofi-goña

Usai gozozko afoza

Ager zaitezen panpoxa.

EGAZTIA.

Andre Maya Efégiña  
Kaiolan dago tariña (bi aldiz)  
Txio-txioka alaitzen daki  
Bai ekaitzaren ortotsa  
Bai biotzaren mingotza.

OGIA.

Andre Maya Efégiña  
Taloa ta artairiña (bi aldiz)  
Au da eguneroko ogia  
Jainkoa'ri eskatua  
Etotarik bidaldua.

IRULEA.

Andre Maya Efégiña  
Irulea ta joskiña (bi aldiz)  
Egin dezazun soñekotxo bat  
Bear dituzu ardatza  
Oiala ta jostoratza.

EGUZKIA.

Andre Maya Efégiña  
Eguzkia ta sorgiña (bi aldiz)  
Etsaiak dira ezin geiago.  
Eguzkian irudia  
Atean karda loria.

ILARGIA.

Andre Maya Efégiña  
Eguzkiaren berdiña (bi aldiz)  
Gaueko izafen adizkidea.  
Ilargirik ez danean  
Krisalua artu eskuan.

ITURIA.

Andre Maya Efégiña  
Sagardo ta txakoliña (bi aldiz)  
Baño obe da ituriko ura  
Alaitzeko arpegia  
Asetzeko egafia.

MAITE (MAITASUNA).

Ereğiña ta Saratsa  
Euskera onari aintza (bi aldiz)  
Napañoa'ko Erege jaunak  
Egin omen du promesa  
Emanen dizu biotza.

---

INGURUKO-DANTZA.

---

AMAYA.

---

ARIN-ARIN.

Gu gera neskatil euskaldunak  
Ezpañetan para degunak  
Gu gera pozaren lagunak  
Gu gera jaietan ezagunak.  
Egun ederean  
Eguzki alaitan  
Paregin, abestu, dantzatu  
Arats ilunetan  
Ilargi zuritan  
Negar egin eta maitatu.

---



---

# GUZIK GAXO.

---

## ERDERATIK ANTOLATUTAKO BAKARIZKETA.

---

*Egiteko bear diran tresnak eta gañerako jakin beatak.*

---

Joxe. Ongi jantzita, ginbala edo sonbrero, tirifa ta eskumutufetakoekin.

Emakume bat, bañendik, bear dan garayan itz egiteko.

Agertokia, sukalde apain bat. Sukalde gañean aspua, bi eltze urez beteak ta kafe ontzia.

Mai bat, eta iru exeri-alki. Mai gañean saski bat afautzakin; palankana bixkotxoakin. Papera ta lapitza. Jostofatza ta ariya.

Bi sila gañetan, plantxako ola ta plantxa bat, ta galtza txurik plantxaren efe-marka eginda.

Seaska pixoyaletako umeakin.

Kartoizko eskumutufeko batean idatzita auxen: "Ordu batean afautz bat... ordu batean afautz bat... ordu bitan afautz bat... Zer esan nai ote du onek... A, bai, orain gogoratzen naiz. Ordu batean afautz bat urtan egosita nere emazteari eman bear diotela, eta ordu bitan, beste bat nere alabari. Seitan, lkazkiña... Gizona! au bai ez naizela gogoratzen. Eztet bada seitan ikazkintzara joan bear-ko. Afanua! lkazkiña seitan etofiko dala."

Poltxiko batean, erloju zar bat, bakaño isatsa ta azanayoak.

Beste poltxikoan, iru paperetan bilduta autsak: (azukria, irifia ta piper-autsa.)

Kanpuan euki bear dira: Txamafa bat eta Sonbrero kaja bat.

Leyoan zintzilik kilker kayolatxo bat.

1 Zintzafiya.

---

*Joxe . . .* —Nere gurdi ardatza... (kantari) (plantxari txistuba botatzen diyo) Nere gurdi ardatza... (beriz) ostuta dijua...

Neroni ere orantxen joango nitzake emendik. Auxen dek ixtiluba: nere emaztia, nere alaba, neskamia ta etxian daukagun bat, pelotariya, *Berobiko txikiya*, guzik gaxo daude oyian, lau tripako miñekin... Ez noski bakoitzak lau tripako miñekin... ez... baizik bakoitzak beriakin... au da bakoitzak tripako min batekin (Au esan bitartean galtza txuri batzuk plantxatzen ari da). Ia, katuba

ere bere tripako miñakin daukagu oyian... oyian ez... zakafetako kajan. Noski, Arkupetako ixkiñan erositako esnia edan zuten, eta... alaxen jafi dira!... Ni ez nau olako gaitzak arapatu, txiki-txikitandik bi gauzetara oituba nagolaño; batzutan go-saltzeko txorixo mutur bat jatera, eta bestetan... ez gozaltzera. Gaurko egunian guziya gezufezkua da. Ori bai, esnia len baño merkegua da. Amar zentimuan ematen dizkiote bati... (eskuak sabel gañean jafiaz)... ematen dizkiote bati... tripako miñ izugafiyak. Iurrogei ta lau gaxotu omen ziran lengo eguneko esne txaragatik, eta nere etxian guzik ni kenduezkero. Ni bakafik geratu naiz zutik, ta... (besuak gurutzetzen ditu plantxa eskuan daukala eta galtzarbea efitzen du...) araye! Eta guziya nere gain erori da. Neronek plantxatu biar, neronek eskobatu, neronek saskiyarekin plazara juan, (utsik daukan eskuko beatzez ikutzen dijoa plantxa daukaten beatzak) neronek umiari titiya eman... esnia eman, neronek eltzia jafi (Beriz ere plantxa ikutzen du, beatz bat efeaz). Araye!... eta baita *modistatzen* egin ere. Nere emazia jostuna da, ta nere alabatxuak *sonbreruak* egiten ditu, ta biyak oiera juan zaizkit esanaz *or konpon!* emen guziya utzirik, (Beriz ere soñkeoa bustitzen du, palankanaren bafenen zerbait arkituaz). Zer da au? almidoyan bizkotxo bat?... Umiaren esne-sopak<sup>in</sup> plantxatzen ari ote naiz ba? (palankan<sup>an</sup> beatz bat bustitzen du, gero zupatuaz). Noski! Ordun... ume gaxo oni zer eman ote diyot nik?... (sonbreroa jantokiko mai gañean uzten du, plantxa jartzen du kantzontzilo gañean, beriz maira dator, beatz bat eltze aundian sartzen du, gero zupatuaz). Almidoya! Jainkuaren izenian!... Au buruba!... (Umeak negar egiten du, besoan gozatuaz). Atoz onera nere biyotzeko kutuna... baña ume au gogorturik dago!... Noski!... Almidoyak egingo zion!... Zer egingo ote det? Deituko ote diot sendagileari, edo aterako ote diot *brilua?* (umeari begiratuaz). **Badrudi ba lo artzera dijua... Pat!** Nolanai ere



almidoyak asko preskatzen omen du ta... presko-presko lo egingo du (beriz seaskan ustean du). Eta almidoyak gaitz egingo baliokie... urtan sartuko det... eta antxen beratuko da. (maira dijoa, plantxa artuaz). Mila demoniyo!... onek bai ez-tula konponketik!... (erakusten ditu bañen-galtzak plantxaren efea atzean agertzen dala) au dek au!... *Be'obi'ko Txikiyarenak* dira! Ta nik zer esan biar diyot?...

*Kanpotik emakume batek* — Joxe!

*Joxe* . . . . — Zer nai dezu, Antoni.

*Emakumea* . — Zotiña daukat.

*Joxe* . . . . — Bai? (alde batera) esaten dute zotiña susto batekin kentzen dala.... zer susto emango ote nioke? zer susto? (bat-batetan) A! (eskubira joanaz eta kafaxika) Ai zazu... aztu egin zait lenago esatia, a'opak legortzeko zabaltzekuan umia le-yotik kalera erori zaitela (bañenen kafaxi bat entzuten da). Ez, emakumia ez jeiki... gezu'ra da-ta. Kendu al zaizu sotiña?

*Emakumea* . — Astakirten ori!

*Joxe* . . . . — Ez asafetu emakumia ofegatik.

*Beste aldetik beste emakumezko bat.* - Aita!

*Joxe* . . . . — Zer da, alabatxo?

*Emakumea* . — Buñuntzaliya agertu al da?

*Joxe* . . . . — Bai zera! alde guziyak begiratu ditut bañan ezta agiri.

*Emakumea* . — Eltzari begiratu zayozu.

*Joxe* . . . . — (Asafetzen asiaz). Begiratzeko eltzari, begiratzeko umiari, begiratzeko gaxo daudenai, begiratzeko buñuntzaliyari... au dek au buñuntzaliya!

*Emakumea* . — Babafunak nola dauden ikusi e?

*Joxe* . . . . — Bai, ta zer geigo?

*Emakumea* . — Gatzik bota al diezu?

*Joxe* . . . . — Bota det gatza, bota det baratzuriya, bota det tipula, ta aurki le-yotik bera nere buruba botako det.

*Pelotariya* . — Ogei amabosti gofiyan alde!

*Joxe* . . . . — (Inguraturik). E? zer nai dezu?

*Pelotariya* . . — Ogei duro amabosti!

*Joxe* . . . . — Obe zenduke ogei duro amabosti eman baño

neri eman. Partiduren bat jokatzten ari dala amestetan dago (katua miauka entzuten da). Ze? i ere bai? Etzekiat zer nai deken (leyoan, goitik botatako aritxo batzuen kaxkatekoak entzuten dira). Kaxo motel! goiko mutilak afika asi dituk! kilkefa jo nai ditek noski (jeixtera dijoo). Eskola baten azpiyan bizitzia gauza edefa da! leyotik gorputza atereaz eta gora begira). Aizak i? Igotzen banauk joko aut! bai ..i bai...i itzan... ez gorde. Ai!... (Sudufera eskua eramaten du, jo egin baluteke bezela, bafena sartuaz eta kilkefa ere sartuaz). Bañan nuan nere lanetara (palenkana artu eta mayera dijoo). Au, emen (botatzen du ontzi batean dagona bestean) au emen (botatzen du eltzekoa palankanean) (zintzafia). Banuala, belaxe banuala! Eta au, emen... (Botatzen du ontzikoa sonbrero eta bereala befiz dator paper batean emakume-sonbrero zapal-zapal bat ekafiaz. Ezkeferko lenbizizo ateñ joaz) Joxepatxo!

*Emakumea .*

— Zein zan, aita?

*Joxe . . .*

— Bizargoñineko neskamia beriz sonbrerua ekafiyaz. Ez omen du nai; eztagola modan bezela. Zapalagua nai dula. Oraindikan ere zapalagua! Tiñaku-tapa dirudi-ta. (Esertoki batean uzten du, eta maira dator). Esan degu... almidoya emen... afaye! edefa egin diagu... (sonbreroa artzen du, bertan dagoana eltzera boteaz). Eguzkitan jafiko det legortzeko (leyoan ipintzen du). Tira-tira (befiz aufera etofiaz) Joxe (buruari atz egifiaz, zerbait gogoratuaz bezela) zer egin bear det geigo? Etzakela ezer aztu... A! bai. Plazako kontuba atera biar det... lau txanpon etzaizkit azaltzen eta eztakit zerenak diran... baliteke nik kontuba gaizki ateratzia... bada-ezpada beriz ikusiko det (artzen du papera ta lapitza eta azten da batutzen zortzi ta sei amalau) (entzuten da mutilak kantari) bi ta bi lau, lau ta bi sei... (eta onela, bina geyago, gero esan arte) amalau ta bat... edo ez, ez-tira sei..., sei ta bi amar... Befiz! Ezta... mutil afayiak! amar ta amar... ez, ez, alpefik da: ezin det... nastutzen naute (bera ere batutzen azten

da, paperean lapitzaz joaz). Bapatetan jeikitzen da eta umien abesti berean dió...

Ara nik atera  
kontu garbiyak:  
ziran lau txanponen  
poñu-peřejilak.

(Umeak kantari jaraitzen dute, eta gero ixiltzen dira). Bai, jauna. Au egiña dago... orain... nun sartu ote det medikubak agindutakuaren papera? (bere zakel edo poltxikoan begiratzen du eta batean iragazki edo *coladorea* arkitzen du, mai-gañera boteaz). A... (alkandorako eskumuturêkoa atereaz...) emen dago... (ezkumuturêkoan irakufiaz) ordu batian afautz bat... ordu batian afautz bat (gogoratuaz bezela) ordu bitan afautz bat... ordu bitan afautz bat... A! bai... orain gogoratzen naiz. Ordu batian afautz bat urtan egosiya nere emaztiarentzat eta beste bat nere alabarentzat ordubitan (gogoratuaz bezela). Lautan ladrilu Txikiya. Bai, Txikiyari ladrilu bat bota... bota ez... sayatzeko miñarentzat ladrilu berua eraman (irakufiaz) seitan efementari... Gizona! auxe bai enaizela gogoratzen. Eztet ba noski, efementari juan biar ko seyetan! (bapatetan) Afaye pola! Efementari, Efementari-kalian bizi dan ikazkiña seitan etortzeko dala (saskitik bi afautz txiki atereaz eta guziaz erakutziaz) nola jafi dan guziya! zazpina efial! (iru paper bildu ateratzen ditu, azkatuaz eta mai-gañean ipiñiaz) Iriña... azukria... piper-autsa... Piper pixk'onek efial bi! bakalua... (bakaño batzuk ateratzen ditu, eta beren artean isats bat eskuan jasotzen du) au ere iyo egin da... ez noski isatsa... bakalua!... Etzait ezer ere aztu... Eta gero diyo nere emaztiak buru txaña detela! (bakaño isatsa zakel batean sartzen du). Tira, lan egin zagun. Afautzak urtan egosteko lenbizi biar da uda... eta egon dediña berua. (Kafe-ontzia mayan jartzen du, aspoa artu ta suari aize emanaz) Aritzekua da emakume-lan oitara ofen azkar nola oitu naizen! (aspoaz alde batera aize emanaz pa-

pereko guzia zabaltzen du) Eta nik esatia gaizki egon aŕen emakumerik txintxoenaŕ ere... (zer egin duen ikusiaz) Aupa!... Geratu naiz ez iriñik, ez azukrerik, ez pipeŕik... (aŕautz bat artuaz) Eta zenbat denboran egon biar ote du ur berotan aŕautza egosteko? Neskamiak esaten du sei Kredo eŕezatzen ditula ta aŕi koskoŕak bezela ateratzen ditu... Nik iru eŕezaezkero eta Purgatoriyo-ko animen alde egiñezkero, oŕa aŕi batekin bi txori batian il.

*Emakumea* . . . —Joxe.

*Joxe* . . . —Zer da, Antoni?

*Emakumea* . . . —Mangak josi al dituzu?

*Joxe* . . . —Enitzan gogoratzen.

*Emakumea* . . . —Ordu batian etoŕiko dira txamaŕaren bila.

*Joxe* . . . —(Beste eskumutuŕetakoa begiratuaz). Eta alaxen da! emen dago-ta... Mangak; ordu batian... (erlejua atereaz...) eta ordu bata manga bat gutxigo da... laurdena gutxigo da... Au egosi bitartian bestia egiteŕa nua (ontzira dijoa bertan erlojua sartuaz, eta mai gañean aŕautza utziaz; ekartzen du auŕera makina eta josten asten da). Iru Kredo esan nun... ezta ala? Tira... *Nik siñisten det Jainko...* aztu zait!... nola dan e... *zeru ta luŕaren egileagan...* (umeak negar egiten du...) eta ume ziltzil oyen egileagan... (bere ezkeŕeko iztaŕean eseritzen du...) Zeñena da arpegi biribil potxolo au?... Zeñena da musugofi au?... (mutilari...) atoz aitarekin... (besoan mutila dula asten da makinan josten). Nun nitzan Kreduan?... A bai!: *bere seme bakar...* bakaŕik izateko obiak zerate, bai... (umeak negar egiten du) zer, ez al zaude ondo?... eseri emen... (bere ezkeŕeko iztaŕean eseritzen du)... *eta exerita dago Jainkuaren eskuitik...* *Eta barka gaizkigutzu gure zoŕak...* (umeak negar egiten du)-tira ixilduko al zera, ala ez?... *gure zoŕak...* au ordia, kredokua al da?... Bai, bai... *orain eta gure eriotzako orduan Amen.* Alaxen! Bat egin degu... (makinareneŕ aŕia mozten du). Nola ote dijua ori... (Eŕezatu bitartean umearen pixoyolaren ertza txamaŕari josi

dio, eta pixoyaletik zintzilika darama. Maira bertaratzen da zer egin duan oartu gabe, eta afautza artuaz)... Ara!... atera egin da... egoztez azper-tu ote da? (erlojuari begiratuaz) Gure Jaun eta Jainkua! Erlojuba egosi det!... (atera egin nai du, beatzak eteaz. Txamaña pixoyalai josi duela ikusten du). Añaye-añayua!... bañan zer naspila da au?... mutila josi det!... noski! ainbeste gauzekin txoratu egingo naiz! (Zintzaria) Kaxo motel... Or ditut... Eta nik zer egin biar det?

*Emakumea* . . . —Txamaña josi al dezu?

*Joxe* . . . . —Ez... edo... bai... edo ez... (izututa batetik bestera kofika dabil. Umea seaskan uzten du, txamaña bere oñetan geldituaz.)

*Emakumea* . . . —Bañan, Joxe?

*Joxe* . . . . —Utzi nazazute pakian, (umeak negar egiten du...) ago ixilik, (katua miauka asten da) ixo i ere!, (eskolan mutilak kantari asten dira): Bi ta bi lau, lau ta bi sei... (leyora joanaz) Itoko al zerate!... (be-soak zerurontz jasoaz) Jauna... iltze bat nere buruba zintzilikatzeko!

(Guziak batean ari dira, katua miauka, umea negarez, sonbreroa zintzilika dantzan leyoan agertzen da. Zintzariak gogor jotzen du. Joxe'k belañiak ixten ditu, eta gero jendeari begiratuaz, eta diadarda bezela dio:

*Joxe* . . . . —Mutilek..., ez ezkondu, eta ezkontzen bazerate ez izan ez emazterik, ez semerik, ez neskamerik, eta ezta ere etxian gaxorik.

ZAPIYA.



# Euskal-Antzertia'ren edestirako apur batzuek.

*Andre ta jaunak:*

Gaurko nere jardunari asiera eman baño len; Euskal-Antzerti, Teatroari buruz dakarzkizutedan itzaldiaren ofiak irakur aufetik; au da, Komedi itzetan esanda, estal-oiala (telón) eroria dagoala oraindik, itz bi zuzendu nai dizkitzutet Gregorio Mujika jauna zanaren oroigafitzat. "*I Pagliacci*" kopailaso arpegi-zuriaren antzo esan dezaket: "Escusatemi si da sol mi presento: io sonno il prologo". Barkatu ba-nator nere ausarkeriarekin bakañik. Itz-aufe ontan bada, Mujika jaunari Euskal-Antzerkiak dion zofa ordaindu nai det.

Beste eletari eder ta adiskide maiteak, orain amabost egun itz egitsu ta bikañetan Mujika'ren afigafizko lana goratu zuten. Euskalzaletasunaren baratz malkafean nekazari zintzo, azkar ta bizkoñenetako bat izan genun Mujika'tar Gregorio, izlari, idazle zuzendari ta euskal gauza guzien eragile aztueziña.

Euskal-Esnalea'ko itzaldi auk ere berari burutu zitzaizkion ematea. Ta gizon aretxen doai berezia! nundik edo andik beti sortzen zuan nor-etofi arazi zuen aufera, edozein gaiz euskeraz mintzatzeraz.

Aukera gutxi zuan batean, lari zebilela-ta, nigana ere jo zuan "*Jeme*" adiskide maitekoñak. Aren eskaerari ezetz erantzutea, ukatzea, zaila gaitza bai zan ta luzapena eman nion; gerora zerbait egingo nuala aginduaz. Uste gabeko eriotz zital batek gure artetik eraman zigun, gizarajoa, senideak ta adiskideak negañez utzirik. Eman nion itza betetzera nator lenengoz. Euskal-Antzertia laguntzen eten gabe leiatu zan. Eñi guzietatik komedi beñien eskean ari oi ziran, gaur ari diran bezelaxe. Ta bear ori, gose ori asetzearen,—idazleak, komedi-egileak ez bai dezateke bere bizkar argitaratu—Mujika'k atera arazi zun "*Izafa*" antzerki sala deritzana.

Ogeitik gora salgai jafi zitun ta beañezkoa da auferantzean bide ortatik jañaitzea "*Izafa*" salak gure Antzerki-zaleentzako landare beñiak, antzerki zar ta sortu beñiak argitaratu ditzan.

Mujika'ri gure Antzertiaren auferapenak buru-auste ta kezka zemakion, berak egin zituen idaz-lan ugariak irakufiaz ikusten denez. Emen ta an, egunkari ta aldizkingietan sakabanatuak, asko idatzi zuan Mujikak, Soroa ta laguneren jostirudiak zirala, Alzaga ta Izunduren lanaren beñi emanez ta orain Euskal-Antzertia'ren alde egiten diran alegiñak ontzat artuaz. Leku ontan bertan, areto ontan-txe, antzerki-talde sariketa ospatu zan.

Efenderi, Pasai'ko ta Bergara'ko taldeak, zeñek obeto antzestu zuten alkañen leian, "Euzko-lkaskuntzak" eskeñitako saria irabazi naiaz. Ta ura ere Mujika'tar Gergori'ren asmoa izan zala asmatuko dezute. Orobat, Gernika'n 1922'g. ospatutakoa. Azkenik, *Saski Naski* taldearen erataletako bat izan genun Mujikataña. Saskia andarez betea daramakila, Mirentxu'k esaten dun aurkezpena, ta gero agerkai guzien itzaureak, ain ertitsu Beorlegi antzezleri yayoak egiten dituanak, kiñu ta ximiko, ba dakizute Gregorio Mujika'k idatziak izan zirala.

Beraz, zuek ikusi apaimen au, egoki bezain merezia ez dun.

Euskal-Antzertiak ni bitarteko kaskar arturik, egiten dio bere esker onaren eskeintza.

Ta geiago gabe, jaun-andreak, jaso arazi zagun estal-oiala antziñatik asita Euskal-Efian, Teatro barütian zer ageri dan ikus ta ausnartu dezagun.

---

*"Doch was man nicht wachsen sieht, findet man nach einiger Zeit gewachsen.*

*(Lessing-Humburgische Dramaturgie).*

---

Emen ere beste toki geienetan bezela Teatroa Elizaren babesean asi ta sortu zan. Ez dakigu ziur zer garaitan, bañan ezagutzen ditugun agiriak XV'g. ta XVI'g. gizaldietan jolas ta erakusbide ori euskaldunen artean noizik beinka erabiltzen zala erakusten digute: Zuberotafak, Auñe-Mendiko beste aldeko gure anaiak, bere luñera ta ango euskara bizian, aldatu zuten "Drama Religioso=*Pastorala*" zeritzana ta oraindik-orain, Maule, Ataratze, Mendibe ta inguruan antzetzutzen dituzte egun jakñetan.

Antziñago begiratuta alpeñik da Euskal-Efian Teatro'aren aztarunik bilatzea; beste elerti kimatxoak ezin arkitu diran bezela. Grezi ta Efoma'ko Trajedi ta Antzerki malara ez ziran iritxi gure asaba zarak. Esan bear da ez zirala iritxi, ez da ere beste Europa'ko eñialde geienak. Eleizak, Kristautasunak piztu zuan beñiz Teatroaren su-gar ta argia bere bidez kristau-erakutsi ta aginduak zabalzearen.

Duret jaun Poitiers'ko irakasle katolikoak dio Elizkizunak zerbait Teatro'aren antza ba-dutela. Meza santua Kalbaio'ko gertaera ituna gogorazten duan "drama" liturjiko bezela jo ditekela.



Eliza antzokia da: apaizak irudigile ala "*Dramatis personæ*"; eliztafak, kristauak, eria. Beraz "acción" jarduna ba-dago ta baita ere alkafizketa, apaizak ta erien artean, batzuek "Dominus vobiscum" ta beste otoitzak, ta eriak "Amen" ta gañerakoak erantzuten dituzte-nean. Ortatik sortu ziran "Auto Sakramental deritzatenak Eukaristia goratzeko ta beste Eliza Amaren ezkutapen ta erakus-bideak erien artean zabaltzeko. Ontan ba-dakizute ta aitortu bear da gaztelerez idatzi izan zirala antzerki edefak ta Calderon igo zala iñork iritxi ez zituen bikaintasunaren mugetara; ta omen au opa dio mundu guziak.

Zuberotañen Pastoralak ere itufi ortatik edo datoz. Herelle jaunak azertu ditu sakon ta begi zofotzez Pastoral orien zer-nolak, Bayona'ko "*Gure Heria'n*", *Revista Internacional de Estudios Vascos* dala ta "Bulletin du Comite de Travaux Historiques" deritzan deian, oparo ta ugari idatzi du gai ontaz. Violet Alford andre inglesak oraindik orain idatzi du "Ensayo sobre los origenes de las mascaradas de Zuberoa. Zubero'ko Mozoro ta Txantxo-buruz idatzi dun lana.

Pastoral oriek Zuberoa'ko zenbait eritan enparantzan antzeztutzen dituzte oltza baten gañean; ta sañitan antzezlari taldeak kalean bira, kalez-kale ibili oi dira, orkesta aüetik dutelarik. Euskal-pastoral geyenak efilijio gaiz diardute ta santu, done ta martirien bizitzak azaltzen dizkigute eredutzat artu ditzagun ta ikusleen gogo-biotzak ikaratu añen.

Bañan bestelakoak ere badituzute pañeragile, iritsu ta jostalariak ta gezur uts ta irudimen utsez egindakoak. Sumatuak, iñon gertatuak baño.

Onenean oltza, irudi-tokira, alkafekin naste-bofaste izugafian aterako zaizkigu Karlomano, Napoleon, inpernuko etsaiak ta nik al dakit zelako naspila; ta bakoitza bere gixa dabilela. Ta gauzak nola diran, gaurko befizaleak ori bera egin nai dute, Ain befizale ez diranak ere, Sacha Guitry batek lan bat ba-du, ta ikusia nago, Paris, Prantzi'ko Kondaira'ren erege ta otsaundiko jaunak agertzen diran antzerkia (*Histoire de France*).

Arira itzuliaz, ta elerti arauz Pastoralak balio aundikoak ez izan añen, ta euskera ez-bazuten asko jaso ere, mingafi da Zubero aldean besterik ez zabaldu izatea. Beste erkietara eda izan balitz Bizkai, Gipuzkoa ta Napaño'ra ta abar ezaguera aundiagoa izango genuen euskaidunek alkafen artean; artu-eman geiago. Ezpañirik gabe ez zan ofenbeste galdu izango euskera; gure jakintza befiz ez da ere añ.

argal ta ezereza. Itz batean ez giñan erori izango orain gauden amildegi ilunean, alare gaur (Arana-Goiri geroztik) pizkundearen argiaz alaitua.

Ezagutzen diran pastoralak 75 bat dira. Martin de Angiozar donostiar idazle yayoak orain amar urte Pastoraletzaz lan eder bat argitaratu zuan *Euskal-Eñiaren Alde*'n. An zer izen dituzten aitatu ta adierazten digu: Aymon, Abraham, Karlomano, Rolando, Mustafa, Ingleterako Karlos eregea ta abar. Azkeneko au dago egiña Laburdi ta Zubero'ko euskaldunek eregetzat ez Prantzia'ko, baizik Ingleterakoa aitortzen zutenean. Iru gizaldietan onelaxe bizi izan ziran Bidasoz bestaldeko gure anaiak.

Erlijio gauzaz gañera ikusi dezute zenbat gai ez berdiñak erabilzen zituzten Pastoralak. Auek oso erikoiak dira ta utsegitez beteak. Ez bai-dira gizon jakintsu ta letradunek egiñak, ta bai bertsolari-erako idazle, iskribatzale apalak sumatuak. Esan beafik ez dago Imprentan, irarkolan, argitaratzeko txanponik ta eroslerik ez zutela Pastora-egileak, (orain ere ez) ta ezagutzen diran guziak eskuz idatziak daudela. Auetarik 50 Burdeos'ko efi-liburutegian daude. la guziak. Alare donostiafak bat badezute Iriko-Liburutegian. Beronen izena *Paris'ko Juan* da. Aita Llande ospetsuak, zuen Liburutegi Nagusira eskeñia. Liburutxooren aldi bateko nagusiak, Juanes Bordato'k, entzun zer idatzi zun bere eskuz eskola-mutilek beren liburuei jafi oi duten eran: "au liburu edera da ta untza iskribaturik; enekin egon da biziki. Olako liburuak ez due balio deusere eta nik ez dut sinisterik batere zertarako ori zereneta arima galerazten baitu. Ni nazu *Janus* edo Juan Bordato, *Musie Chavalet de Pagolle*". Lafi zan Bordato edo *Chavalet* jaun ori ta ofegatik nunbait saldu ala eman zuan gaur zuen Liburutegia'n ikusi dezakezuten Pastoral ori.

Esandakoa naikoa dala nago Euskal-Antzerkiaren lenengo ufa-tsak Zubero'ko Pastoralai zor diogula jakiteko. Elerti-arauz balio ga-beak ta kaskañak izanez gañera, Pastoralak gaurko egunerako ikus-kizun aspergafiak izango lirakela agirian dago.

Goizean asi ta afatsaldean bukatzen diranak ba-dituzute: lau edo bost ordu dirautenak.

(*Jarraituko da*).

Guk uste degu nai ta naiezkoa dala zenbait agefaldi, euskeraz ipintzea.

Batez ere lenengo ekitaldiko agefaldiak; bigarren ekitaldiko Anita ta Pedro Mari'ren alkar izketak; ta baita ere irugañen ekitaldian, laburditar anaiekin biltzen dan uneko agefaldiak euskeraz ba-lira, askoz obeto belarira ta egiantzera (verosimilitud) letorzkela gaude.

Onela izateko eragozpenak ba-dirala ba-dakigu; alaz gutiaz, era ontan: "*Pedro Mari*" antzerkiak anitz irabaziko luke; ta euskeraz gutxi ala batere ez dakitenentzat, gaia ezaguturik ez litzake ain ulergaitza izango.

Gure iritzia ori da beintzat  
*Aztertzele.*

---

### Euskal Teatroa Ustaritz'en

Berandu bederik, ez degu aipatu gabe utzi nai, Ustaritz'en, Laburdi'ko Kapitoariaren efian, Eguberi egunez ospatu zan antzerki jai. Bertan, "*Oltzabeñian*" deritzan antzerki: "misterio" ala eskutapena dalakoa antzestu zuten.

"*Oltzabeñian*" Blazy ta Hirriart J. jaunak sortua da ta euskeraz Elissalde "*euskeltzaiñak*" itzuli du.

Ustaritz'eko andereñoak afas ongi ta egoki beren arloak betetzen azaldu omen ziran.

Jo bide ortatik laburditarak

ta batez ere Blazy, Elissalde, Hirriart ta Garmendia jaunak. Emen dago "*Antzerti*" zuei laguntzeko.

---

### Antzertia'ren bide berriak.

Antzertia beste ertiak bezelaxe eraberritzen joan oi da, ta auferapenak bilatzen, berizaleok beti-beti ez ba'dute asmatzen ere.

Gaur Paris aldetik datorkigun era berria aztertu zugun, arin bederik.

Iru talde "berizale" edo ezagutzen ditugu: "*L' Atelier*" "*Les Quince*" ta "*Arlequin*". Irurak "*efecto*" audienak atera nai dituzte alik eta antzestlari gutxi ta bide ererenetatik.

"*Atelier*" taldekoak egiten duten "*Tzar Lenine*" ikustekoa omen da. Lenengo ekitaldian iru bat lau antzestlari ta zenbait txotxongilokin zapi beltzean, ondorengo izugariak sortzen omen dituzte.

Beste orenbeste, "*Les Quince*" taldeak antzestutzen dun "*Bataille de la Marne*" rengatik, esan diteke.

Alemaniko gudaroztea "gudari" bakar batez azaltzen dute, bañan Bach'eren "*korala*" entzuten da gramolan joa, gañerako guzia adierazten duna. Onela eratua dago antzerki ori ta ikusgari ta edera dala orok airtortzen dute.

Noiz sortu bear degu Euskal-Erian gure antzertia'ri auferapena emango dion antzeslari-talde gazte ta ausarta befi bat?

NIK.

---

“Maitasunak” Victoria

Eugenia'n eta Ariaga'n.

Ez ditugu nolanaiko maitasunak aitatu, Bafiola'ren “Maitasunak” baizik. Antzerki au, izenez Porto Riche'ren “*Amoureuse*” gogora ba-dakarkigu oso bestelakoa da. Orain amar bat urte idatzi zun Bafiola'k; orduko Donostia'ko “*Antzoki zafean*” lenengoz antzeztua izanik. Il onen, Epailaren 19'an, Joseba Deunaren egunez befiro

antzeztu dute *Euzko-Etxeko* taldeak “*Victoria Eugenia*” antzoki ederean.

Ta talde berak beste antzezkizuna Bilbao'ko “Ariaga” antzoki bikafiean eman du Berbizkunde eguneko Abefi-jaiak zirala-ta.

Beraz “*Maitasunak*” Euzkadi'ko bi antzoki apain ta aundienetan antzeztu dira, areto biak bete-beterik zeudela, ta ikusleen txalo-jotze sutsuen artean.

Ga'antzi aundiko gertakaria da au gure antzertiarentzat ta ofegatik zorionik gartsuenak Bafiola jauna, Euzko-Etxea'ko taldea ta jaien eratzaleai bidaltzen dizkiegu.

Zale.